

Windows 95, euskarari leihoak irekiz

E_ Arrojeria & P Kaltzada

Merkea, erraza eta edozeinek erabiltzeko modukoa. Microsoft enpresak egindako publizitate-kanpainan esandakoa sinistu behar badugu, horiek dira Windows 95 sistema eragilearen abantaila nagusiak. Euskaldunok laugarren bat gehitu beharko genuke zerrenda horretan: euskaraz ere erabili ahal izango dugu.

P Cko egile gehienek onartu dutenez, Windows 95a etorkizun hurbileko sistema eragilea izango da. Are gehiago, euskarari leihoak ireki dizkio sistema berriak, orain arte erabiltzailearentzat eskuraezinak ziren baliabideak mahai gainean jarri baitizkio. Nolanahi ere, luze hitz egin da sistema horren abantailaz eta eragozpenaz. Ondorengo lerroetan ez dugu guk eztabaida horretan sakonduko, sobera luze jo beharko lukeelako. Zalantzarik gabe, euskaldunontzat abantailatsua suertatuko da oso Windows 95 sistema eragilea, has-teko euskaraz baliatzerik izango dugulako. UZEI eta Elhuyarren lan-taldeak burutu du Windows 95aren itzulpena eta horrexen berri eskatu diogu UZEIko Lore Azkarateri, lanaren koordinatzaileari.

ELHUYAR-ZETIAZ: Sistema eragile baten euskarazko bertsiorik badugula esateak gure hizkuntza gainerakoaren errekonozimendua maila berean jartzea eragingo al du?

Lore Azkarate: Kanpora begira horrela da, dudarik gabe. Euskaldunok

hizkuntza berezia dugula eta hori erabiltzen dugula aditzera emateko bide bat da eta oso garrantzitsua gainera, gero eta gehiago erabiltzen delako ordenadore-bidezko komunikazioa. Gaur egun euskaraz diharduen ordenadore-sistema eragile bat erabiltzeko modua dugula esateak, euskara zerbait dela adierazten dio itxurari garrantzia ematen dion jendeari. Nolanahi ere, barrura begira beste modu bateko balorazioa egiten dugu guk. Hemendik aurrera izan ere, ordenadorearekiko harremanak ere euskaraz burutzeko aukera izango dugu. Herri honetan gero eta gehiago gara euskaraz lan egin eta euskaraz bizi nahi dugunok eta alderdi horretatik, Windows 95 euskaraz erabili ahal izateak gure bitartekoak areagotzea ekarriko du. Ez da ahaztu behar gainera, euskara irakaskuntzan eta komunikabideetan sartu dela, baina lan-munduan hutsune handia dagoela, bulegoetan eta fabriketan oso txikia baita euskararen presentzia. Jendeak euskaraz lan egiten ohitu behar badu, lan-tresna egokiak beharko ditu. Zentzu horretan, euskararen normalizazio-bidean ekarpen handiko apustua dela esango nuke.

E: Z.: Jende askoren lana koordinatu beharra eskatu du lan honek. Nola baloratuko zenuke hori?

L. A.: Esan beharrik ez dago, herri honen ezaugarrietako bat indibidualismoa dela. Bakoitzak bere aldetik ibiltzeko joera dugu eta nahikoa buruhauste ekartzen digu horrek. Azken urteotan hasiak gara zorionez, talde desberdinen lana koordinatuz proiektu bateratuak egiten, baina euskaldunon artean beti ere. Oraingoan, kanpoko enpresek ere parte hartu dute eta hori berria izan da guretzat. Microsoft-ekoentzat ere atipiko samarra izan da hainbeste erakundek parte hartzea, baina lanaren atal desberdinak nori zegozkion argitu ondoren, ez da aparteko arazorik izan. Alde horretatik, balorazioa positiboa da. Horrek baino lan handiagoa eman digu itzulpen-taldearen lana koordinatzeak eta kontrolatzeak. Zortzi lagun aritu gara lehen fasean eta sei bigarreanean eta ez da erraza izan eginkizun eta atal desberdinak egoki uztartzea, itzulpena zuzentzea eta estilo homoginoa lortzea hain epe laburrean.

E.-Z.: Zeintzuk dira lan honetan parte hartu duten erakundeak?

L. A.: Hasteko Microsoft informatika-enpresa erraldoia dago. Berea da Windows eta beraz, itzuli behar zen materiala eskuratzeko bidea eman digu. Horrez gain, formazio-ikastaro bat eta lokalizazioen azken ukituak enpresak berak egin ditu. Bigarrenik, Lexitrans Madrilgo enpresa dago, lanerako glosarioak, testak eta gainerakoak landu dituena. Nolabait esatearren, Lexitrans-ek Microsoft-en eta itzultzaileen arteko zubi-lana egin du, materiala eskuratzeko unean eta arazo teknikoak konpontzerakoan ere. Eta hirugarrenik, euskarazko Windows 95 produktua itzultzeko ardura izan dugun bi erakundeok: UZEI eta Elhuyar. Lan-banaketaren arabera hortaz, gure bizkar gainean geratu da lan-taldea osatzea, koordinatzea, lana antolatzea eta jakina, itzulpena egitea. Produktzio-prozesuan zuzenean parte hartu duten hiru atal horiez gain, lanaren segimendua egin duten bi erakundeak aipatu beharra dago, Hizkuntza Politi-



Aldian aldiko estualdiak ahaztu ez bazaizkigu ere, oso positibotzat jotzen dugu egindako lana. Orain, erabiltzailearen iritzia zein den jakitea falta zaigu.

karako Sailordetza eta Eusko Jaurleritzako Informatika Elkarte, EJI. EJI-eren partaidetza bereziki azpimarragarria da, lanerako tresnak ipintzea, tresneria antolatzea eta lanaren ordainketa bere gain hartu zitzuelako. Neurri batean, EJI-k gure eskarien aurrean erantzuteko izan duen azkartasunari esker iritsi ahal izan gara Microsoft-ek agindutako epeetara.

E.-Z.: Erronka handiegia dirudi horrek den-dena egiteke zuen hizkuntza baterako..

L. A.: Ezin esan ordea, horrela zenik! Informatika-hizkeraren aldetik hainbat eta hainbat lan egina da euskaraz: Informatika-hiztegia duela pare bat urte argitaratu zen, hainbat testu argitaratu da euskaraz, Informatika Fakultatean aspaldi hasi ziren klaseak euska-

raz ematen, beste programa batzuk ere badaude euskaraz... eta Word 6.0 itzuli berria genuen. Hizkuntzaren aldetik ez gabilta oso atzera beste hizkuntza "handiekin" alderatuta, besteek ere nahikoa lan izaten dute informatikan etengabe sortzen diren termino berriak egokitzen eta finkatzen. Erronka izan da bai, baina bolumen honetako lan bat hain denbora gutxian egin behar izateak estutu gaitu batez ere. Egia esateko, Word-en itzulpena egiten ari ginela eman ziguten bigarren erronka handi horren berri. Iazko apirilean izan zen hori eta geroztik lan-eritmo frenetikoan aritu behar izan dugu 95ean bukatzeko. Jakina denez, Windows 95i horrexegatik jarri zaio izen hori, 1995ean kaleratu direlako jatorrizko bertsioa ingelesez eta horren lokalizazioak makina bat hizkuntzetara. Beraz, urte horretan egin eta amaitu behar zen lana eta guk epe horietara egokitu behar izan dugu derrigor. Horrek nahi baino gehiago estutzea eragin zuen eta erlojuaren kontra lan egin dugula esan dezakegu.

E.-Z.: Itzulpena amaituta, nola baloratuko zenuke egindako lana?

L. A.: Hitz gutxitan esatea zaila da. Lan-funtzionamendua oso gogorra izan da eta egun gutxitan egin behar izan da hilabetetako ahalegina eskatzen duen lan bat. Alde horretatik, lasaitasun gehiago eskatuko genuke. Bestalde, hizkuntzaren aldetik oso interesgarria eta aberasgarria izan da, bai makina-hizkera egokitzearen aldetik eta baita terminologia berria lantzearen aldetik ere. Aldian aldiko estualdiak ahaztu ez bazaizkigu ere, oso positibotzat jotzen dugu egindako lana. Orain, erabiltzailearen iritzia zein den jakitea falta zaigu.

E.-Z.: Orain artekoarekin konformatu beharko al du erabiltzaileak edo era horretako lan gehiago egiteko asmoa duzue etorkizunean?

L. A.: Asmoa bai noski, euskarazko materialak prestatzea gure zeregin nagusia delako, material horien euskarria papera izan edo ordenadorea. Euskarri informatikoei dagokienean, bide horretatik jarraitzea edo ez jadanik gure esku ez dagoen erabakia da. Une honetan, erabiltzailearen erantzukizuna da bitarteko horiez baliatzea edo egindako lana baliorik gabe uztea. Alabaina, ez dut uste azken hori gertatuko denik, merkatuan egiazko interesa dagoelako produktu horiek eskuratzeko. Ordenadorearen aurrean ere, euskaraz lan egin daitekeela eta hori lortzeko moduak egon badaudela ohartu behar du erabiltzaileak. Gaur egun merkatuan dauden bitarteko guztiak, hardware eta software guztiak gure hizkuntzan jartzea oso zaila izango da, baina gutxienez oinarritzko materiala euskaratzea lortuko bagenu, mesede handia egingo genioke euskararen normalizazioari.

E.-Z.: Microsoft enpresak ez du itzulpen hitza erabili eta horren ordainetan, lokalizazio hitza dabil. Zertan datza desberdintasuna?

L. A.: Windows 95 bezalako produktu bat hizkuntza askotan erabili ahal izateko moduan antolatu nahi izan da. Hasiera-hasieratik adierazi zuen Microsoft-ek itzulpen hutsetik aldegin nahi



zuela, produktua lokalizatu egin behar zela, hau da, herrialde bakoitzean bertan egin izan balitz bezala azaldu behar zuela. Gu erabat ados ginen helburu horrekin noski, geuk baitugu interesik handiena produktua hizkuntzari eta inguruneari behar bezala egokitzeko. Hala ere, esan beharra dago praktikan lokalizazio hori oso azalekoa dela eta asmo hutsean gertatzen dela. Adibidez, zailtasun izugarriak izan ditugu data euskaraz behar bezala jartzeko, portzentaiaren kasuan, % zeinua zenbakiaren aurrean jartzen ez digute utzi zenbaitetan, hilabete eta egunen izenen laburdurak aldarazi nahi izan dizkigute, etab. Esan egiten dute, baina ez dute asumitzen. Ulertzekoa da batetik, programatzaileen eginkizun nagusia izan ere, programaren funtzionamendua egokia bermatzea delako eta horretan ari direla, ez zaizkielako burutik ere pasatzen beste hizkuntzetan sor litezkeen arazoak.

Orraztu gabe geratu diren ñabardura asko aipatuko nituzke hemen, baina ez nuke irudipen faltsurik sortzen lagundu nahi: egin zitekeen produkturik osatuena egin dugula uste dut eta erabilitzaileka hutsune batzuk aurkituko baditu ere, ez dago denborak osatzen ez duen gaitzik eta beraz, hurrengo urratsetan egiteko modua izango dugu. Egindako akatsetatik ikasi beharra dago eta etorkizunean arazo horiek gaindituz joango garela koan gaude. Lehen jauzi kualitatiboa dela kontutan hartuz, gure aldetik emateko genuena eman dugula uste dut.



* ZETIAZ-Elhuyar